

du Txilek egun ekoizten duen energia kopurua bikoiztea.

«Energia gehiago behar dugu- la egia bada ere, garrantzia duen galdera beste bat da: nola sortu- ko dugu energia? Hor ikusiko genuke zein pisu duten energia aurrezteko neurriek, eraginkor- tasunak eta merkatuaren handi- tzeak», adierazi du Gloria Baigo- rotegui ikerlariak.

Moreirak eta konpainia han- dien interesak defenditzen di- tuzten guztiek itzalaldien auke- ra aipatu dute, herritarrak beldurtu nahian. Baigorrotegui- ri ez zaio hori bidezkoa irudi- tzen, egoera horretara iritsi au- rretik aukera asko baititu herrialdeak. «Energia politikak aurrera begiratu behar du derri- gorrez, eta ez horrenbeste bere- hala bildu beharreko irabaziei», esan du adituak.

URTEGIRIK GABEKO PATAGONIA

Oso bestelako balorazioa egin du Patricio Rodrigo Chile Am- biente elkarteko zuzendari eta Urtegirik Gabeko Patagonia mu- gimenduko eledunak. Berak egin duen irakurketaren arabe- ra, azkenean Gobernuak bat egin du giza mugimenduak az- ken zortzi urteotan esandakoa- rekin: «Jarrera hori beharko da aurrerantzean ere, aldaketak he- rritar guztien onurarako izan daitezen». Berak ez du zalantza- rik: herrialdeak energia iturri garbiak behar ditu, jasangarriak.

Gainera, “El Mercurio” egun- kariaren lana salatu du Rodri- gok, proiektuaren aldeko aho- tsak ezkutatu eta aldekoiei bakarrik egin dielako leku. Bere ustez, hedabide horren infor- mazioa «alderdikoia» izan da iraganean, eta ezaugarri bera du orain ere, batez ere HidroAysen geldiarazita energiaren prezioak gora egingo duela esaten duene- an. «Egunkari hori gezurretan aritu da lehen eta gezurretan ja- rraitzen du orain ere, enpresei mesede egiteko».

Rodrigo ondoan zuela eskaini- tako prentsaurrekoan Guido Gi- rardi senatariak nabarmendu zuenez, «denbora askoan kon- painien interesei eman zaie le- hentasuna, herritarren interesei eman beharrean; ea HidroAysen



HidroAysen proiektuaren aurkako mobilizazioak mehatxatutako ibaien ondoan (beheko irudian) zein hirietan (goikoan) egin dira azken urteotan. GAUR8

